

KOLDO NÚÑEZ-BETELU

## “Japoniako 2011eko itsasikaratik zer ikasi badago”

*Koldo Núñez Betelu (Donostia, 1958). 1986an Geologian lizentziatu zen UPV/EHU. 1994an Geologian Doktoretza lortu zuen Calgaryko (Canada) Unibertsitatean. Elhuyar Fundazioko kide eta patronoa eta 1995etik gaur egun arte Zientziaren dibulgatzailea. Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzaile eta irakaslea izan da, Europar Ikerkuntza proiektuen arduraduna eta IMH Ingeniari Eskolako zuzendaria ere.*

**Azken urteotan hainbat lurrikara, itsasikara eta tsunami gertatu dira munduan zehar... eta Euskal Herrian joko balu?**

Aurreko egunotan Japonian jo duen lurrikarak Euskal Herrian joko balu, akabo. Ez litzateke ezertxo ere zutik geratuko eta erabateko triskantza izango litzateke.

**Zergatik ari dira gertatzen horrenbeste lurrikara indartsu horren urte gutxitan? Ba al dute loturarik?**

Mugimendu sismikoak eta aktibitate tektonikoa oso loturik daude, eta aktibitate tektonikoa, maila desberdinetan bada ere, mundu osoan ematen da. Lurrikara gehienak eta bortitzenak plaka tektonikoen elkarren aurka dauden aldeetan gertatzen dira.

Ozeano Barearen inguruan gertatzen da egun aktibitate sismikorik handiena, bertako plaka azkar hasi eta mugitzen ari baita, ondorioz inguruko plakak bultzatuz. Horregatik Asiako Ekialdeko hainbat eskualdetan zein Amerikako Mendebaldekoetan maiz gertatzen dira lurrikara bortitzak.

Seismoen ondorioak gutxiagotzeko Japonian orain dela 50 bat urte lurrikarak aurrez igartzeko

programa jarri zen martxan. Programa hau seismologian oinarritzen da batez ere, baina orain arte oso emaitza gutxi eman du. Bestalde, Gobernuak 1980. urtean lurrikaretatik babesteko neurriak igorri zituen. Horrela, eraikuntza berrientzat arau bereziak ezarri eta jendea hezteko programak bideratu zituen. Arau horiei esker, Japonia osoko eraikuntza berri gehienak ez ziren lurrera erori aurtengo lurrikaran, horrela biziak salbatuz. Baina, zoritxarrez, neurri hauek ez ziren nahikoa izan tsunamiei aurre hartzeko.

**Iberiar Penintsulan lurrikararik?**

Garai historikoetan Iberiar Penintsulak jasan duen mugimendu sismikorik indartsuena Eurasia eta Afrikako plaka nagusien arteko Azores-Gibraltar izeneko faila garrantzitsuan gertatu zen 1755eko azaroaren batean, Santu Guztien eguneko goizeko bederatziak eta hogeian, jende asko elizetan meza entzuten ari zen unean. Hiri askotan eragin zuen kaltea baina, txikizioa benetan izugarria izan zen Lisboan. Itsasikarak 9,0 inguruko magnitudea hartu omen zuen eta hiru eta sei minutu artean irauan.

Berrogei minutu geroago, hoguei metroko tsunamiak izugarritzko indarrez eta sinistu ezineko abiaduran iritsi ziren kostaldera, eta bertan babes hartutakoek ihes egiteko ezer ezin izan zuten egin. Guztira, 90.000 lagunetik gora hil ziren.

Lurrikara, jakina, Iberiar Penintsula osoan sentitu zen, eta kalte handiak eragin zituen. Esaterako, Valladolideko katedraleko dorre bat lurrera jauzi zen, eta tsunamiek Cadizeko harresiak hautsi eta uholde ikaragarriak eragin zituzten. Iberiar Penintsulara ez ezik, eraginak munduko toki askotara barreiatu ziren.



**Lurrikara eta ikasgaia Txilen 2010ean**

Charles Darwinek duela 175 urte bizi izan zuen lurrikara, 2010ean gertatutakoaren parekoa izan omen zen indarrean. Orduan bezala, hondamendia eta heriotza ekarri zituen aurreikuspen zehatzik ez zelako egon. Aurretik lurrikara batek noiz joko duen jakitea ikaragarri zaila da oraindik. Baina lurrikarak behin jo duen tokian berriro jo dezakeela badakigu. Izan ere, duela ia hiru urte zientzialari talde batek aztertu zituen Darwinek idatzitakoak eta datuak jaso zituen Txileko failen inguruan. Haien ustetan, indar handiko beste lurrikara bat gertatzeaz zegoen inguru berean, zehatz-mehatz noiz izango zen ezin bazuten esan ere. Bete-betean asmatu zuten eta honetarako behar zen informazioaren parte bat, aspaldi zegoen idatzita norbaitek aztertu zain.

**Zer egin aurrera begira?**

Aurreikusteak badu beste esanahi bat euskaraz, prebentzioarena, hain zuzen ere. Eta horretan, egin daiteke egiten dena baino gehiago. Batetik, informazio gehiago behar dugu, seismologia moderno eta paleoseismologiaren bitartez zein gure aurrekoek egindako behaketen bidez, eta, bestetik, informazio horren arabera neurriak hartu.

Beraz, guri dagokigu ahalik eta gehien ikertzea, geologia sakonean ezagutzeko eta, horrela, ahal den guztia aurreikusi eta babesa aurretik hartu. Naturak ez du errurik eta paira daitekeena, neurri handi batean, gizakion esku dago.

**Elkarrizketa osoa:** [www.euskonews.com/5722bk/](http://www.euskonews.com/5722bk/)

La entrevista completa está disponible en euskera y castellano en la dirección mencionada.

JOSÉ JAVIER FERNÁNDEZ

## Exposición y financiación

A raíz de la crisis financiera que está sacudiendo tanto la economía como la sociedad de nuestro entorno más próximo, son numerosas las noticias que durante los últimos meses se han sucedido en los medios de comunicación en torno a las dificultades financieras por las que están pasando muchos de los museos, centros, fundaciones e instituciones dedicadas al arte. Y es que una de las principales consecuencias de la crisis ha sido que los diferentes gobiernos que sostienen económicamente la mayor parte de estos proyectos han recaudado menos dinero pero han tenido que gastar más para poder hacer frente a la crisis, por lo que las ayudas y las subvenciones que los diferentes proyectos artísticos necesitan para su funcionamiento han menguado considerablemente. Además, debido a la propia crisis también ha sucedido un descenso del consumo y del gasto y, por tanto, muchos de estos proyectos dedicados al arte han visto reducidos no sólo los ingresos externos sino también los propios, los internos que generaban ellos mismos. Propuestas como la de insertar directamente en los espacios museísticos publicidad de grandes empresas y corporaciones como las que están barajando museos como el Louvre de París o la Tate Gallery de Londres son sólo un síntoma de la situación que se vive en el sector.

Sin embargo, el problema no sólo ha sido financiero y puntualmente ligado a esta reciente crisis económica. El problema, como curiosamente ha ocurrido también

con el sector de la construcción, viene de antes ya que en el medio artístico también hemos sufrido una burbuja museística –nuestro propio “boom”– con la apertura desmesurada y muchas veces inapropiada de numerosos museos, centros, fundaciones e instituciones dedicadas al arte y a otras actividades culturales. Este excedente ha conseguido sobrevivir hasta el momento gracias a las ayudas públicas y a la bonanza del gasto y del consumo que nos ha rodeado, pero cuando la situación ha cambiado también ha entrado en crisis. Y es que gestionar correctamente un centro dedicado al arte es mucho más complejo que abrirlo, y son muchas las cuestiones que hay que tener en cuenta no sólo en cuanto al emplazamiento o el continente –el edificio–, sino sobre todo en cuanto al contenido y además desde una doble perspectiva, ya que por una parte hay que organizar la exposición permanente –dirigida a un público generalmente ocasional– y por otra parte la actividad periódica –dirigida a un público habitual– que debe de estar surtida no sólo de exposiciones temporales sino también de otro tipo de actividades que atraigan al espectador o al cliente o al consumidor, como mejor queramos llamarlo. Lamentablemente, son pocos los museos que entre nosotros han tenido en cuenta todas las variables descritas –además de otras, ligadas al tipo de público– y este factor junto al excesivo número de aperturas de nuevos centros, han sido los principales problemas que han generado nuestra particular crisis museística. Por tanto, no es

la crisis financiera la que está llevando al posible cierre de muchos de estos museos sino la falta de una gestión y una previsión adecuada por parte de estos centros.

En este nuevo panorama, quienes lo están pasando especialmente mal son aquellos museos que aunque reciben ayudas y subvenciones públicas mantienen la propiedad y la gestión privada. Estos museos son los que más han notado tanto la crisis de consumo y de gasto como la evidente falta de una gestión más profesional que haya tenido en cuenta todas las variables que rodean a esta actividad artística y económica. Sin embargo, esta situación no justifica de ninguno de los modos que estos proyectos de carácter privado tengan que sobrevivir con el dinero público pero sin replantearse su gestión privada, y es que si los diferentes gobiernos inyectan dinero público en estos proyectos privados nunca debe ser de un modo gratuito sino que siempre tiene que estar sujeto a una participación directa en la gestión del propio centro; si las entidades privadas han llegado a esta situación no sólo es porque falte dinero sino también porque el proyecto no ha funcionado correctamente y, por tanto, hay que mejorar o cambiar la gestión. Creo que es lo más lógico pensar que si un proyecto artístico de este tipo hay que sostenerlo con dinero público por el propio bien de la sociedad –tanto por su nivel cultural como por la defensa de su patrimonio–, sea la propia sociedad a través de sus instituciones políticas quienes tomen parte en la gestión de la institución; si no sería una ayuda, una colaboración, sino un regalo, y no creo que la actual situación económica sea un período adecuado para hacer regalos de este tipo.

### Paperetik sarera

[www.euskomedia.org](http://www.euskomedia.org)



### Teresa, Prudentzio, Telmo eta Virgilio

Joan den martxoan, Mikel Donazar Jaunsaras zuzendariaren *Virgilio Leret, El Caballero del Azul* izenburuko dokumental interesgarria proiektatu zen Madrilan eta Iruñean, baita Euskal Telebistan programatu ere. Bertan, Virgilio Leret Ruiz iruindarraren bizitza eta patuari heltzen zaie. Armadako kapitaina, hegazkinlaria eta elektrizitate ingeniari mekanikoa zen eta 1935ean lehen erreakzio motorra asmatu eta patentatu zuen. Melillako bere postuan zegoela, 1936ko uztailean 17ko estatu kolpearen aldeko matxinada gelditzen saiatu zen eta fusilatu zuten; haren heriotza Espainiako gerra zibilaren lehen gertakartzat hartu ohi da.

*Euskonewseko* irakurleentzat **Virgilio Leret**, dokumentala estreinatu aurretik ere, ezaguna zen nolana ere. Hala, Eusko Ikaskuntzako astekari horrek bere 203. alean jadanik Mikel Rodriguez historialariaren “Un navarro, ¿inventor del motor a reacción?” izenburuko artikulua argitaratu zuen 2003 urtean. Hil honetan berreskuratu dugu eta irakurri nahi izanez gero, [www.euskomedia.org](http://www.euskomedia.org) gunearen ATEJOKA leihotik sartu beharra dago.

Prestatze luze baten eta eraberritze proiektu kontaezinen ondoren, azkenik sortu da Donostiako **San Telmo Museo** berria. Euskadiko zaharrena dugu: 1902an jaio zen eta

1932tik gaurko kokalekuan dago, XVII. mendeko domingotar komentua batean. Horren elizan Jose Maria Sert margolari katalanak mural ikaragarriak ondu zituen, sepia kolorez eta gai historikoei buruzkoak. Bat egiten dugun gertaera horrekin, Auñamendi Entziklopedian dagokion hitzarekin lotuz.

Gipuzkoatik Arabara egiten dugu jauzi, bertan hil honetan ospatzen baitute beren zaindaria, San Prudentzio. Eusko Ikaskuntzaren funts digitaletan murgildu eta irriti elkarrizketa erakargarri batekin egin dugu topo. Alberto Garate hain gogoratua, Ramon Loza eta Alberto Gonzalez de Langarikarekin batera, **San Prudentzio** jaiaren izaeraz

mintzatzen dira, gaur zer den eta historian zer izan den. Balio bereziko dokumentu soinuaduna.

Hil honetan ere, Bilbon, Teresa del Valle 2010eko Berdintasunerako Emakunde Saria jasoko du. Eusko Ikaskuntzako bazkide eragilea, gaur egun Gipuzkoako Lehendakariordea da; era berean, Eusko Ikaskuntzaren XVII. Kongresuko Lehendakaria izan da eta Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Antropologiako katedradun emeritua da. Sari honek aitortu egiten ditu **Teresa del Valleren** lana eta gizarte eragina, giro akademikoetatik haratago. “Klik” soil batez, irakurleen esku jartzen dugu horren biografia.

IXUSKO ORDEÑANA

# Eleria: atzo, gaur eta etzi, zuzenbidea euskaraz bizi

**A**tzo. Datorren urtean *Eleria. Euskal Herriko Legelarien Aldizkariak* hamabost urte beteko ditu. Ez dira gauzak gutxi aldatu gure Herrian 1996an, Eusko Ikaskuntzaren magalean, aurkeztu zen o zerbaki hartatik. Tarde honetan hamazortzi zerbaki kaleratu dira, horietako bi monografikoak (Euskararen Normalkuntza Legearen eta Nafarroako Euskararen Foru Legearen gainekoak, bosgarren eta hamaikagarren aleak, hurrenez hurren). Gainera, "testuak" izenburupean zuzenbide ikasleentzat lau eskuliburu argitaratu dira (*Lan Zuzenbidearen iturriak, Justizia eta burujabetza, Prozedura Zibileko Lege berria eta Zerbitzu publikoen kontzeptua eta kudeaketa*). Datuekin itsutu gabe, poztasuna eta harrotasuna ekarri behar digu euskal juristei aldizkari honen jarioak: 70 artikulutik gora (guztiak jatorriz euskaraz!), 50 iruzkin baino gehiago, elkarrizketak, kronika eta albiste mordoak... oparoa izan da oso. Berezkorik ezer ez dagoenez eta fruituak lana galdatzen ohi duenez, bereziki eskertzekoa da urte hauetan egitasmo honetan lanean aritu izan diren pertsona guztien indarra, kemena eta denbora. Ez dugu izenik emango aldizkari hau pertsona askorena delako; Euskal Herriko



legelari guztiena alegia, *Elerian* partehartze zuzena izan dutenena eta gainerakoena. Beraz, meritua ere guztiena da. Eskerrak eman behar zaizkie baita Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiei, Nafarroako Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari ere, urte hauetan guztietan aldizkariaren babesle izan baitira.

Gaur. Egindakoari so eginez, egun legelarien euskarazko aldizkariak bere helburuak bete ote dituen galde diezaiokegu gure buruari. Ziur asko gai hau izan daiteke gazi-gozoen iturri. Aipatutako o zerbaki hartan, garaiko Eusko Ikaskuntzako Lehendakari Gregorio Monrealek zioen bezala, *Eleriak* bere sorrerarekin euskal juristen artean euskararen erabilera suspertzeko eta normalizatzeko premia asetu nahi zuen. Erroka honetan Zuzenbidearen Historiako Katedradunak bereziki aipatzen zituen aldizkariaren jomuga lege Euskal Herriko Unibertsitateko eta Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko ikasleak, beraiek Zuzenbidearen aplikatzaile gisa bizi profesionalera igarotzen direnak direla azpimarratuz. Haiei irakasle nafarrak abokatuak, notariak, epaileak eta oro har "zuzenbidean jakitun" diren guztiak gehitzen zizkien. Zalantza gabe, zuzenbideak arautzen duen gizartearen legelari edo jurista gisa edozein arlotan aritzen den oro zuzen buruan. Guztiak euskaraz lan egitera eta bizi zuzen animatzea du xede legelarien euskarazko aldizkariak. Horrenbestez, galdera ezinbestekoa da: Heldu al da *Eleria* hauetara guztietara? Aho batez erantzunak baiezkoa behar du izan, *Eleriak* talde horietan guztietan dituelako harpidedunak eta horietako guztietako ordezkariak aritu direlako urte hauetan argitaratutako artikulua, kronika, elkarrizketa eta abarren autore edo protagonista gisa. Beste kontu bat da arlo horietan guztietan (unibertsitatea, epaitegiak, abokatuak, funtzionariak, lanbide esparru desberdinetan diharduten legelariak,...) euskararen erabilera normalizatu den edo ez. Eremuan eremuko berezitasunak alde batera eginda, orohar hamabost urtetan asko egin bada ere, tamalez, oraindik asko dago egiteke. Zuzenbidean euskararen normalizazioa urrun dago.

Etzi. Etsipena baztertuta, *Eleria* Euskara suspertzeko eta normalizatzeko tresna egokia dela frogatuta –dokumentu publikoek epaiketetan frogatuta osoa egiten duten bezalaxe– eta jatorrizko helburua guztiz barneratuta, proiektu honetan dihardugunok lanean jarraitzen dugu. Itziar Alkorta eta Igone Alzelaik bikain bete zuten idazkari lana aurrerantzean IXusko Ordeñan egingo du. Haiek landatutako eta bereziki jagondako landarea, ziur asko Eusko Ikaskuntzaren anagraman jasotzen den aldaxkatik jaioa, ureztatzeaz arduratuko da azkena. Horrela, euskal baseritarrek beren ortuariak ureztatzeke ura ibatik baratzerara eramateko bide bat egin behar izaten duten bezala, bidean dira jada *Eleriaren* 19. eta 20. zenbakiak. 19. alea ohiko atalekin argitaratuko da: gaiak, elkarrizketak, iruzkinak, berriak... Bigarrenerako, berriz, hasierako atal batzuk berreskuratuko dira: epaiak eta epaitegiak, euskara juridikoa, bidean dauden legeak...

[www.eusko-ikaskuntza.org/eu/eleria](http://www.eusko-ikaskuntza.org/eu/eleria)

## Gertatu zen



Juan Zaragüeta



Ángel de Apraiz



Leoncio Urabayen

### Zertan ari zen Eusko Ikaskuntza?

#### ¿A qué se dedicaba Eusko Ikaskuntza?

#### ¿A quoi se consacre Eusko Ikaskuntza?

**E**usko Ikaskuntzak 1918an sortu zenetik bereizgarriren bat izan badu, hori interesen aukera sorta handia izan da, baita haren jarduera zehazten duten bitartekoen ugaritasuna ere, zientzia, kultura eta gizarte sustapen kontzeptu ez gutxiago zabalaren barnean.

Aurrekoaren frogatza gisa, 1921eko lehen hiruhilekoan elkarteak

gauzaturiko jarduerak biltzen zituen *Eusko Ikaskuntzaren Deia*ren 9. zenbakiak. Besteak beste: toponimia lanak eta landare izendegia; etnografia datuen bilketa; Euskal Herriko mapa prestatzea; euskal arteari buruzko indizeak eratzea; bere artxibo eta liburutegia aberastea; herri kulturari buruzko jarduerak; alkoholismoaren kontra egiteko bideei buruzko azterlanak; hitzaldien antolaketa; aldizkariaren prestatzea; euskal antzerkiaren sustapena.

#### Zaragüeta y Apraiz

En anteriores entregas de esta sección se ha hablado del gran trabajo desempeñado por Ángel de Apraiz como Secretario General,

cargo que compatibilizaba con la cátedra en la Universidad de Barcelona. Esto, obviamente, causaba importantes disfunciones.

Gracias a las gestiones realizadas por Juan Zaragüeta ante el Consejo de Instrucción Pública, finalmente en 1921 se obtuvo la agregación para que Apraiz pudiera residir en el lugar donde Eusko Ikaskuntza estimase más conveniente. Esta excepción a la ley se justificaba desde el Ministerio en consideración a "la importancia de la obra cultural que realiza la Sociedad de Estudios Vascos".

#### Projection en Amérique

Leoncio Urabayen, Trésorier et Membre de Enseignement, proposa

qu'une délégalion du Conseil Permanent aille en Amérique pour prendre contact avec les principaux noyaux basques au moyen de conférences et autres rencontres. L'illustre pédagogue navarrais pensait que ce serait profitable aux collectivités basques des deux continents.

Le projet commença bientôt à murir. On pensait que le centenaire du tour du monde de Juan Sebastián Elcano, prévu pour 1922, était l'occasion de mener à bien une "mission culturelle et économique en Amérique Centrale et du Sud". Les premiers contacts épistolaires avec les organismes basques d'outre-mer reçurent une réponse enthousiaste.



## Kultura Ereileak

### Grupo de Investigación Siglo de Oro (GRISO)

El GRISO (Grupo de Investigación Siglo de Oro) es un equipo de investigación fundado en 1990 por Ignacio Arellano en la Universidad de Navarra que reúne investigadores de esta universidad y otros asociados de distintas instituciones, tanto españolas como extranjeras. Desde su nacimiento ha organizado más de 100 congresos, impulsando también la publicación de estudios y ediciones críticas.

En la actualidad desarrolla la "Línea de Investigación Prioritaria Siglo de Oro", que incluye proyectos de investigación como la edición

crítica completa de los autos sacramentales y comedias de Calderón, las

obras completas de Tirso de Molina y las comedias burlescas del Siglo de Oro; la publicación de la revista quevediana *La Perinola* y la colección Biblioteca Áurea

Hispanica y el desarrollo del Centro de Estudios Indianos, dedicado a la literatura, historia y cultura de Iberoamérica desde el Descubrimiento hasta el

Barroco. Todos estos proyectos, altamente valorados por su alto prestigio y calidad científica, sitúan en conjunto al GRISO en la vanguardia del Hispanismo mundial.

Dos rasgos destacan en los proyectos y actividades del GRISO: su proyección internacional y su carácter interdisciplinar. En los dos últimos años el GRISO ha coorganizado congresos en Oporto

(Portugal), Craiova (Rumanía), San Petersburgo (Rusia), Dakar (Senegal), Mumbai (India), Nueva York (Estados Unidos), Boston (Estados Unidos), Santiago de Chile (Chile), La Paz (Bolivia), Ciudad de México (México) y Niterói-Rio de Janeiro (Brasil), Egipto. El enfoque interdisciplinar se refleja en el hecho de que muchos de los proyectos del GRISO enlazan la investigación estrictamente literaria con otras disciplinas como la lingüística, la historia, el arte, etc.

Para una información completa de las publicaciones, líneas de investigación y actividades del GRISO ir a

<http://www.unav.es/griso/>



## Argitalpenak



### Redes iconográficas. San Francisco Javier en la cultura visual del barroco

AUTORA: GABRIELA TORRES OLLETA  
MADRID/FRANKFURT: IBEROAMERICANA / VERVUERT, 2008  
869 p. : IL. ; 21 CM.  
ISBN: 978-84-848-9-4537

Este libro examina las fuentes esenciales en la formación y difusión de la imagen de San Francisco Javier: desde las cartas del propio santo, la bula de canonización, hagiografías, hasta numerosos sermones, relaciones de fiestas y libros de emblemas. Todas estas fuentes se ponen en correspondencia con las realizaciones plásticas de las tallas, pinturas y grabados. Muchos cuadros y series de la vida del santo, mal interpretados hasta la fecha, se iluminan al ponerlos en contacto con la documentación textual. Paralelamente al examen de los textos se recoge un gran número de imágenes sin limitaciones regionales, del siglo XVI hasta el XVIII, de uno de los santos más emblemáticos de la época.



### Lan-zuzenbide juridikzionala. Azterketa objektiboa eta kritikoa

EGILEA: IXUSKO ORDEÑANA GEZURAGA  
BILBO: UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA, 2010  
348 OR. ; 24 CM.  
ISBN: 978-84-8438-289-8

Esku artean daukazu liburua honek espainiar ordenamendu juridikoan aplikatzen den Lan Zuzenbide Juridikzionala du aztergai. Horretarako, lehenengo hiru kapituluetan LZJ deritzogun zuzenbidearen arloa ZJ orokorrean kokatzen da, honen oinarriko elementuak lan-arloa aplikatuz. Liburuaren bigarren zatian, sei kapitulu zehar, Lan Arloko Prozeduraren Legearren islan, lan-arloan epaileek herritarrei eskaintzen dizkieten adierazpenezko, betearazpenezko eta kautelazko babesak jorratzen dira. Bukatzeko, azterketa objektiboa eta subjektiboa uztartuta, egun langileen eta ugazaben arteko liskarren epai bidezko konponketak aurkezten dituen indarrak eta ahuleziak mahaigaineratzen dira, araudia hobetzeko zenbait proposamen eginez.



### Flores de montaña

AUTOR: DAVID HERNÁNDEZ ALBIZU  
DONOSTIA: MICHELENA, 2011  
393 P. : IL. ; 21 CM.

La colección Mono-gráficas Michelena nos sorprende, un año más, con un libro bello al par que interesante. En esta ocasión se trata de un completo catálogo de flores de montaña de nuestro entorno. El trabajo, destinado a profanos y caminantes curiosos, se presenta en forma de fichas de flores agrupadas por colores (amarillas, azules, blancas y rojas) y por familias, con sus correspondientes nombres populares y científicos, más las asociaciones simbólicas habituales. Un trabajo del todo punto impresionante, coronado por una espléndida edición con cientos de fotografías que reproducen hermosas y fidedignamente el cromatismo de los originales. Un placer para el conocimiento y para los sentidos.



### La Gran Utopía

AUTOR: IÑIGO BOLINAGA  
SANTA CRUZ DE TENERIFE: MELUSINA, 2011  
189 P. : 17 CM.  
ISBN: 978-84-96614-21-5

En la utopía encontramos un relato del cierre de la historia: nada menos que el advenimiento del futuro perfecto. Un futuro del que siempre estamos a la zaga. Pero una vez alcanzada la utopía, sabemos que ya no habrá necesidades que cubrir ni esfuerzo que consumir; ni habrá envidias, ni rencores porque se habrá abolido la familia, la propiedad, el Estado, el trabajo y todas las formas odiosas de sujeción. La utopía es el motor del comportamiento del ser humano desde que es hombre: el deseo de transformar la realidad y, al igual que Dios, hacerla su imagen semejanza. ¿Un sueño vano? Quizás; pero sin ella no existirían las sociedades contemporáneas, con sus logros y sus barbaries...

**ATEJOKA**  
**030**

APIRILA  
ABRIL  
AVRIL  
2011



Argitaratzailea  
Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia,  
Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA.  
Ergitalpen Idazkaria  
Eva Nieto

Argazkiak  
Eusko Ikaskuntzako Argazki Artxiboa,  
Euskedia Fundazioa eta Estitxu  
Euskedia

Harpidetzak  
Atejoka etxean jaso nahi baldin  
baduzu, idatzi edo dei egin ezazu  
helbide hauetara:

Eusko Ikaskuntzako  
Bulego Nagusiak  
Miramar Jauregia, Miraconcha, 48  
20007 DONOSTIA  
Tel. 943-310853  
Fax 943-219356  
e-sev@eusko-ikaskuntza.org.

Arabako Bulegoa  
General Alava, 35<sup>a</sup>  
01005 GASTEIZ  
Tel. 945-23152  
Fax 945-148752  
gasteiz@eusko-ikaskuntza.org.

Bizkaiko Bulegoa  
Pº de Uribitarte, 10, planta baja  
48009 BILBAO  
Tel. 94-4425287  
Fax 94-4414659  
bilbo@eusko-ikaskuntza.org.

Nafarroako Bulegoa  
Pl. del Castillo, 43 bis. 3. D  
31001 IRUÑEA  
Tel. 948-222105  
Fax 948-21737  
iruna@eusko-ikaskuntza.org

Ordutegia  
Astelehenerdik ostegunera 9:00-13:00  
eta 15:30-17:30; ostirala, 9:00-13:00  
Horario  
De lunes a jueves de 9:00-13:00 y de  
15:30-17:30; viernes de 9:00-13:00

Iparraldeko Bulegoa  
51 quai Jauréguiberry  
64100 BAIONA  
Tel. 559598290  
Fax 55946844  
baiona@eusko-ikaskuntza.org

Ordutegia  
Astelehenerdik ostegunera: 8:30-12 eta  
15:00-18:00. Ostirala: 8:00-12:00.  
Du lundri au jendri: 8:30-12:00 et 15:00-18:00  
et le vendredi de 8:00-12:00.

L.G.: SS-1150-2008. ISSN: 1889-0342  
Fotokomposaketa: Ipar SL  
Inprimategia: Michelena a. g. Astigarraga